

BERDINTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARI NAGUSIA

PATRICIA CAMPELO MARTÍNEZ

Patricia Campelo Martínez Santurtzin jaio zen 1973an.

Prestakuntza akademikoa:

Soziologian doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV). Bere doktore-tesiak Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioak emandako Bikaintasunaren I. Saria lortu zuen.

Hiria Kudeatzeko Unibertsitate Masterra, Universitat Oberta de Catalunya.

Politika Zientzietan eta Soziologian lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean (UD).

Irakaskuntza- eta kudeaketa-esperientzia:

- 2008tik 2019ra, Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko idazkari akademikoa (EHU/UPV). 2019ko martxotik uztaile, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) Bizkaiko Campuseko idazkaria.
- 2008tik 2019ra, Soziologia eta Zientzia Politikoaren Euskal Elkarteko (AVSP) lehendakariordea.
- 2015etik 2019ra Inguruak aldizkariaren zuzendaria.
- 2002tik 2019ra, Soziologia eta Gizarte Lana Saileko irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV), hala graduan nola master eta doktorego nazionaletan eta nazioartekoetan irakatsiz.
- 2001etik 2002ra, Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

Ikerketa-esperientzia:

- 2010. urteaz geroztik, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) Civersity-Credein ikerketa-taldeko kidea da. Talde horretatik, genero-desberdintasuneko, gizarte-kohesioko, enpleguko, lurraldeko eta politika publikoen ebaluazioko faktoreei buruzko nazioarteko eta nazioarteko I+G kontratu eta proiektuetan parte hartu du.
- Estatuko eta nazioarteko kongresu ugarian txostengile gisa parte hartzea eta hainbat artikulu eta liburu-kapituluren sortzailea.
- X Premio-Accessit de Investigación Francisco Javier de Landaburu Universitas 2011 (Amaia Izaola eta Imanol Zuberorekin batera).
- 1997tik 2001era, Eusko Jaurlaritzaren doktoratu aurreko bekaduna Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV); egonaldiak Aix-en-Provenceko (Frantzia) CNRSn, Cardiffeko Unibertsitatean (Erresuma Batua) eta Collage of Social Sciences, California State Universityn (AEB).

Hizkuntzak:

Euskara: EGA

Ingelesa: C1